



## IDEIA

Bidai jasagarriak egiteko web orri bat. Hostal, hotel, jatetxe, taberna, kafetegi eta beste hainbat zerbitzu jasagarriekin egingo genuke lan; beraiek erreserba gehiago lortuko lituzkete guk emango genien klima jasagarritasunaren bermeagatik, eta guk dirua irabaziko genuke bezeroek ordaindutako portzentai bat guretzat izango zelako. Negozio hauen jasagarritasunaz zihurtatzeko gaian adituekin egingo genuke lan hostalek erabilitako energia iturriak, ondasunen erabilera, produktu jasagarrien erabilera... aztertuz.

Horrez gain, bezeroei aukera emango genieke gure webean bidaia egiteko erabili duten garraioak izan duen ingurumen-eragina leuntzeko ingurumena zaintzera zuzenduak dauden GKEi dirua emateko aukera. Hau egiteko webak beraien garraioak sortutako CO2 isurketen hurbiltze bat egingo du, eta hauen ezabatzearen kostua kalkulatu du.

Nahiz eta horrelako zerbitzuak erreserbatzeko beste weborri batzuk existitu, gurea ingurugiroaren jasagarritasunean oinarritua egongo da, eta horregatik gure bezeroek gure zerbitzuak erabiliko dituzte eta ez bestelakoak. Geroz eta pertsona gehiago daude kezkatuak planetaren osasunaren inguruan eta horregatik gure proiektuak geroz eta publiko zabalagoa edukiko du denbora aurrera joan ahala.